Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

2471

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 18koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Anodizados Especiales y Duros SLri ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Ordiziako (Gipuzkoa) udalerrian duen instalazioan metalak tratatu eta estaltzeko.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 28an, Anodizados Especiales y Duros SL enpresak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua emateko eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Ordiziako udalerrian (Gipuzkoa) metalaren tratamendu eta estaldurako jarduerarako. Ondorengo dokumentu teknikoak erantsi zitzaizkion eskaerari:

– Ingurumeneko baimen bateratuko eskaera. Proiektu teknikoa (2006ko abendua).

– Ingurumeneko baimen bateratuko eskaera. Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

– 2006ko irailaren 30eko Ordiziako Udalaren hirigintza-txostena.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Anodizados Especiales y Duros SL enpresak, besteak beste, 1992ko ekainaren 30eko zabaltze-baimena zuen. Baimen hori piezak anodizatzeko jarduerarako eman zuten. Hala ere, martxoaren 8ko Ordiziako Udalaren idatzian jasotzen den moduan, baimen hori enpresak gaur egun okupatzen dituen bi pabilioietako bati bakarrik dago lotuta. Halaber, enpresa sustatzaileak isurketak kolektorera egiteko Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren baimena zuen, 2005eko otsailaren 3koa, isurketen inguruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

2007ko urtarrilaren 23an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari da-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

2471

RESOLUCIÓN de 18 de marzo de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la planta de tratamiento y revestimiento de metal promovida por Anodizados Especiales y Duros, S.L., en el término municipal de Ordizia (Gipuzkoa).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 28 de diciembre de 2006 Anodizados Especiales y Duros, S.L. solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de una autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de tratamiento y revestimiento de metal en el municipio de Ordizia (Gipuzkoa). La solicitud se acompañaba de la siguiente documentación técnica:

– Solicitud de autorización ambiental integrada. Proyecto técnico (diciembre de 2006).

– Solicitud de autorización ambiental integrada. Resumen no técnico (diciembre de 2006).

– Informe urbanístico del Ayuntamiento de Ordizia de 30 de septiembre de 2006.

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Anodizados Especiales y Duros, S.L. tenía, entre otras, Licencia de Apertura de fecha 30 de junio de 1992. La citada autorización se concedió para la actividad de Anodizado de piezas; si bien dicha autorización, tal y como se recoge en escrito del Ayuntamiento de Ordizia de fecha 8 de marzo, se encuentra referida exclusivamente a uno de los dos pabellones ocupados actualmente por la empresa. Asimismo, la empresa promotora disponía de Autorización de vertido a colector emitida por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa de 3 de febrero de 2005, de conformidad con la normativa vigente en materia de vertidos.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 23 de enero de 2007 solicita informe al Departamento de Sanidad de Gobierno Vasco, al Ayuntamiento de Ordizia y al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, órganos con intervención en el procedimiento en orden

gokionez. Zehazki Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Ordiziako Udalari eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari kontsultatu zien.

2007ko otsailaren 27an eta urriaren 9an, ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea uztailaren 13an osatu zen. 2007ko urriaren 9an, berriz, ingurumen organoak sustatzaileari beste hainbat agiri eransteko eskatu zion. Azkenean espedientea 2007ko azaroaren 8an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Anodizados Especiales y Duros SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, zegokion iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostena eskatu zien Ordiziako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko otsailaren 27an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Anodizados Especiales y Duros SL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta a que por el Órgano Ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto.

Con fechas 27 de febrero y 9 de octubre de 2007, el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 13 de julio; posteriormente, con fecha 9 de octubre de 2007, el órgano ambiental requirió nuevamente al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 8 de noviembre de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Anodizados Especiales y Duros, S.L., en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 2 de diciembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública, se constata que no se ha presentado alegación alguna.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2008 Informe al Ayuntamiento de Ordizia, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 27 de febrero de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Anodizados Especiales y Duros, S.L., incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia a lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se

burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Anodizados Especiales y Duros SL enpresaren kasuan baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena; industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskribatzeko baimena; saneamenduko sistema integralera isurtzeko baimena; eta, ingurumen-arloko beste hainbat zehaztapenen artean, atmosferaren kutsaduraren gaiari, eta lurzoruaren kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko baimenak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ingurumeneko Baimen Bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamendua onartzen duenean aurreikusten zena; ez du ordezkatzen ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentziak ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Anodizados Especiales y

aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presente autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anexo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Anodizados Especiales y Duros, S.L. tales autorizaciones se circunscriben a la Autorización de productor de residuos peligrosos, Inscripción en el Registro de productores de residuos industriales inertes y la Autorización de vertido al sistema integral de saneamiento y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso

Duros SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Ordiziako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko «Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastic» BREF txostenaren edukia kontuan hartu da. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikagarria da batez ere apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua. Honen bidez, Ontzien eta Ontzien Hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Araudia onartzen da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Anodizados Especiales y Duros SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko otsailaren 27an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua;

fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Anodizados Especiales y Duros, S.L. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, incorporando, con el resultado que obra en el expediente, los informes del Ayuntamiento de Ordizia y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se ha considerado el contenido del Documento BREF Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics de fecha agosto de 2006 de la Comisión Europea. Además en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, en especial el Real Decreto 782/1998, de 30 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 11/1997, de 24 de abril, de Envases y Residuos de Envases.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Anodizados Especiales y Duros, S.L.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación y dada la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 27 de febrero de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica

Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Ordiziako udalerriko (Gipuzkoa) Mallutz kaleko 36an duen eta IFK B-20379194 zenbakia duen Anodizados Especiales y Duros SL enpresari Ordiziako udalerrian metalaren tratamendu eta estaldurako jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematea, Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Tratamendurako erabilitako kubeten edo linea osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean, prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez metalen eta plastikozko materialen gainazala tratatzeko instalazioak» izenekoan.

Enpresaren instalazioak Ordiziako udalerriko (Gipuzkoa) Mallutz Industria Poligonoko 36. zenbakian daude.

Anodizados Especiales y Duros SL enpresak 1.285 m^2-ko azalera okupatzen du, osorik zolatua eta eraikia, eta bi nabez osatua. Bulegoetan sartzeko bi ate daude, eta materiala kargatu eta deskargatzeko lantegira zuzenean sartzeko ate bat.

Nabeen barruan honako instalazio hauek daude: bi ekoizpen-lerro, materialen biltegia, hondakinen biltegia eta bi bulego.

«1 lerro»ak 17.000 dm^2/egun ekoizteko ahalmena du, eta «2 lerro»ak, berriz, 20.000 dm^2/egun.

Enpresak, tratamendu-lerroez gain, honako makineria hau du: hozteko bi ekipo, artezteko hainbat makina; bi orga garraiatzaile, errailbakardun bi zubigarabi, transformadore bat, aire-ponpa bat eta konpresore bat. Hondakin-uren aurretratamendurako ditu neutralizaziorako upela, hutsean egiteko lurrungailua, prentsa-iragazkia eta ekipo desmineratzailea (hutsean egiteko lurrungailuaren akats bat aurreikusita tarteka erabiltzen dena).

Energia-iturri bakar gisa Anodizados Especiales y Duros SL enpresak energia elektrikoa erabiltzen du. Batez ere ekoizpen-lerroetan kontsumitzen da.

Bi ekoizpen-lerroetako bakoitza honako eragiketa hauek osatzen dute: muntaia bastidoretan, koipegabetzea, garbitzea, herdoil-kentzailea, garbitzea, anodiza-

del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Anodizados Especiales y Duros, S.L., con domicilio social en c/ Mallutz, n.º 36, del término municipal de Ordizia (Gipuzkoa) y CIF: B-20379194, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de tratamiento y revestimiento de metal, en el término municipal de Ordizia, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría «2.6 Instalaciones para el tratamiento de superficie de metales y materiales plásticos por procedimiento electrolítico o químico, cuando el volumen de las cubetas o de las líneas completas destinadas al tratamiento empleadas sea superior a 30 m^3» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

Las instalaciones de la empresa se encuentran situadas en el Polígono Industrial de Mallutz n.º 36, del término municipal de Ordizia (Gipuzkoa).

La empresa Anodizados Especiales y Duros, S.L. ocupa una superficie de 1.285 m^2, íntegramente pavimentada y edificada, formada por dos naves. Existen dos puertas de acceso a las oficinas y una puerta de acceso directo al taller para carga y descarga de material.

Las naves comprenden las siguientes instalaciones: dos líneas productivas, almacén de material, almacén de residuos y dos oficinas.

La capacidad productiva de la «línea-1» es de 17.000 dm^2/día y la de la «línea-2» es de 20.000 dm^2/día.

La empresa, además de las líneas de tratamiento, dispone de la siguiente maquinaria: dos grupos frigoríficos, varias rectificadoras, dos carros transportadores, dos grúas puente con monorraíles, un transformador, un soplante y un compresor. Para el pretratamiento de las aguas residuales dispone de una cuba de neutralización, un evaporador al vacío, un filtro prensa y un equipo desmineralizador (utilizado ocasionalmente en previsión de un fallo en el evaporador a vacío).

La única fuente de energía utilizada por Anodizados Especiales y Duros, S.L. es energía eléctrica, destinándose el principal consumo a las líneas productivas.

Las operaciones de que constan cada una de las dos líneas productivas son: montaje en bastidores, desengrase, lavado, desoxidante, lavado, anodizado,

tzea, garbitzea, garbitzea, garbitzea, zigilatzea, garbitzea, bastidoreak desmuntatzea, lehortzea.

Anodizados Especiales y Duros SL enpresak erabilitako ura Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eskaintzen du eta tratamendu-lerroetan (bainuak eta garbiketak) eta langileen higienerako erabiltzen da.

Urak eta hondakin likidoak tratatzen dira haiek neutralizatuta eta prentsa-iragazkitik pasatuta. Bertatik lurrungailura igarotzen dira isurketarik sortu gabe.

Birziklatutako ura prozesuko lerroetara itzultzen da. Era horretan, ur-kontsumoa asko murrizten da. Eta horrela ez da industria-uraren isurketarik gertatzen.

Anodizados Especiales y Duros SL enpresak aluminiozko piezak anodizatzeko lanak egiten ditu hirugarrengoentzat. Erabilitako lehengaiak aluminioa tratatzen duten bainuak osatzeko produktu kimikoak dira. Gehien kontsumitutako lehengaia azido sulfurikoa da. Anodizazio-bainua bera azido sulfurikoz osatua dago.

Komun eta aldageletatik datozen ur sanitarioena da sortutako isurketa bakarra. Isurketa hori Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kolektorera egiten da.

Urtean 261 m^3 ur kontsumitzen da (2005. urtea). Horietatik 230 m^3 langileen higienerako erabiltzen dira. 31 m^3, berriz, ekoizpen-lerroetan erabiltzen dira. Beraz, ekoizpen-lerroetan kontsumitutako ura lurrungailuko ura birzirkulatzetik badator ere, lurrungailuan sortutako hondakin likidoa eta hondakin solidoak (araztegiko lohia) sortzeak eragindako galerak berrezarri behar dira.

Sortutako euri-urak poligonoko euri-uren sarearen bitartez isurtzen dira.

Anodizados Especiales y Duros SL enpresak ez du atmosfera isurketarik egiten.

Anodizados Especiales y Duros, SL enpresak aurkeztutako proiektuak teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu: Urberritzeko urak hutsean egiteko lurrungailura (20 ºC) eramaten dira eta prozesuan berriz erabiltzen dira. Enpresak koipegabetzeko eta zigilatzeko bainuetarako «eco» urberritzeak ditu. Hutsean egiteko lurrunketa bidez garbiketa-urak berreskuratzen dira. Bainuko osagaien kontzentrazioaren aldizkako barne-kontrola egiten da. Anodizazio-bainuaren iragazte jarraikia gauzatzen da. Erabilitako koipegabetzeek ur-oinarria dute.

Bigarrena.– Ordiziako udalerrian Anodizados Especiales y Duros SL enpresak sustatuta, metalaren tratamendu eta estaldurako jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta betebeharrak ezartzea:

lavado, lavado, lavado, sellado, lavado, desmontaje de bastidores, secado.

El agua utilizada por Anodizados Especiales y Duros, S.L. es suministrada por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, y utilizada en las líneas de tratamiento (baños y lavados) y para higiene de personal.

El tratamiento de las aguas y residuos líquidos consiste en neutralizarlas y hacerlas pasar por un filtro prensa, y de aquí pasan al evaporador, de manera que no se generan vertidos.

El agua reciclada vuelve a las líneas de proceso, obteniéndose así, una reducción importante en el consumo de agua. De tal forma que no se genera vertido de agua industrial.

Anodizados Especiales y Duros, S.L. realiza trabajos de anodizado de piezas de aluminio para terceros. Las materias primas utilizadas son productos químicos para la formación de los baños en los que se trata el aluminio. La materia prima consumida en mayor cantidad es el ácido sulfúrico, del que se compone el propio baño de anodizado.

El único vertido generado es el de las aguas sanitarias procedentes de aseos y vestuarios, que es efectuado a colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

El consumo anual de agua (año 2005) asciende a 261 m^3. De estos, 230 m^3 son destinados a higiene de personal. Mientras que 31 m^3, se destinan a las líneas productivas. Pues si bien, el agua consumida en las líneas productivas procede de la recirculación del agua del evaporador, es necesario reponer las pérdidas debidas a la generación de residuos sólidos (lodo de depuradora) y residuo líquido generado en el evaporador.

Las aguas pluviales generadas son vertidas a través de la red de pluviales del polígono.

Anodizados Especiales y Duros, S.L. no genera emisiones atmosféricas.

El proyecto presentado por Anodinados Especiales Y Duros, S.L. incorpora entre otras las siguientes medidas que pueden considerarse Mejores Técnicas Disponibles (MTDs): las aguas de aclarado se llevan al evaporador a vacío (20 ºC) y se reutilizan en el proceso, la empresa cuenta con aclarados «eco» para los baños de desengrase y sellado, se lleva a cabo la recuperación de aguas de lavado mediante evaporación a vacío, se realiza un control interno periódico de la concentración de los componentes del baño, se lleva a cabo la filtración en continuo del baño de anodizado, los desengrases empleados son en base acuosa.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de tratamiento y revestimiento de metal, promovido por Anodizados Especiales y Duros, S.L. en el término municipal de Ordizia:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Anodizados Especiales y Duros SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Gaur egun Anodizados Especiales y Duros SL enpresako metalaren tratamendu eta estaldurarako instalazioak isurtze atmosferikoak sortzen ez baditu ere, prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Isurketa horren berri Ingurumen Sailburuordetzari eman behar zaio, isurketa-fokuen katalogazioa egiteko. Sortutako isurketek aplikatu behar zaizkion isurketen muga-balioak beteko dituzte.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

Anodizados Especiales y Duros SL enpresaren metalaren estaldura eta tratamenduko instalazioak sortutako isurketa bakarra langileen higieneari dagokio. Egoera honi dagokionean edozein aldaketa gertatzen bada (prozesuko ur, hozte-ur, euri-ur zikin eta abarren isurketa sortzea) Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, aldaketa hori ebaluatzeko behar den dokumentazioa aurkeztuta, eta aplikatuko zaizkion isurtzeko muga-balioak beteta.

Azken isurketak «Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kolektorera doazen isurketak erregulatzeko araudian» adierazitako mugak eta baldintzak bete beharko ditu.

A) Anodizados Especiales y Duros, S.L. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al responsable de las relaciones con la Administración.

B) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes.

B.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

B.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.1.1.1.– Condiciones generales.

Si bien actualmente, la planta de tratamiento y revestimiento de metal de Anodizados Especiales y Duros, S.L. no genera emisiones atmosféricas, toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones. Dicha emisión ha de ser comunicada a la Viceconsejería de Medio Ambiente, con el fin de proceder a la catalogación de los focos emisores. Las emisiones generadas cumplirán con los valores límite de emisión que le sean de aplicación.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser construidas, explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

B.1.2.– Condiciones para el vertido a la red de saneamiento.

El único vertido generado por la planta de tratamiento y revestimiento de metal de Anodizados Especiales y Duros, S.L. es el correspondiente a higiene de personal. Cualquier modificación que se produzca respecto a esta circunstancia (generación de vertido de aguas de proceso, aguas de refrigeración, aguas pluviales sucias,…) ha de ser comunicada a la Viceconsejería de Medio Ambiente, presentando la documentación necesaria para su evaluación, además de cumplir con los Valores límite de emisión que le sean de aplicación.

El vertido final deberá cumplir los límites y condiciones que figuran en el «Reglamento Regulador del Vertido a Colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa».

B.1.2.1.– Urak berriz zirkulatzeko arazketako instalazioak.

Hondakin-urak arazteko eta hauek berriz zirkulatzea ahalbidetzen duten instalazioek honako hau egiten dute:

Iragazi aurretik hidroxido sodikoa gehituz urak neutralizatzen dituen aurretratamendua. Prentsa-iragazkian iragaztea, kudeatzaile baten bidez kudeatzen diren opil solidoak (araztegi-lohia) sortuz.

Iragazitako likidoa hutsean egiteko lurrungailuan sartzen da. Bertan, likidoaren % 80 inguru lurrundu eta ekoizpen-lerroetara bideratzen da, eta gainerako % 20a likido kontzentratu gisa biltzen da baimendutako kudeatzaile batek kudeatzeko.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Anodizados Especiales y Duros SL enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedu-

B.1.2.1.– Instalaciones de depuración para recirculación de agua.

Las instalaciones de depuración de las aguas residuales, que posibilitan su recirculación consisten en:

Pretratamiento consistente en neutralizar las aguas mediante adición de hidróxido sódico antes de su filtrado. Filtrado en filtro prensa, generando tortas sólidas (lodo depuradora) que son gestionadas a través de gestor.

El líquido filtrado entra en el evaporador a vacío, donde aproximadamente el 80% del líquido es evaporado y recirculado a las líneas productivas, mientras que el 20% restante es recogido en forma de líquido concentrado para su gestión a través de gestor autorizado.

Si se comprobase la insuficiencia de las medidas correctoras adoptadas, Anodizados Especiales y Duros, S.L. deberá ejecutar las modificaciones precisas en las instalaciones de depuración a fin de ajustar el vertido a las características autorizadas, previa comunicación a la Administración y, si procede, solicitará la correspondiente modificación de la autorización.

B.1.3.– Condiciones para garantizar la correcta gestión de los residuos producidos en la planta.

Todos los residuos generados en las instalaciones se gestionarán de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y normativas específicas que les sean de aplicación, debiendo ser, en su caso, caracterizados con objeto de determinar su naturaleza y destino más adecuado.

Queda expresamente prohibida la mezcla de las distintas tipologías de residuos generados entre sí o con otros residuos o efluentes, segregándose los mismos desde su origen y disponiéndose de los medios de recogida y almacenamiento adecuados para evitar dichas mezclas.

En atención a los principios jerárquicos sobre gestión de residuos, todo residuo deberá ser destinado a valorización mediante su entrega a valorizador autorizado. Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o medioambientalmente viable. Se priorizará la regeneración-reutilización frente a otras formas de valorización ya sea material o energética.

Asimismo, aquellos residuos para los que se disponga de instalaciones de tratamiento autorizadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán ser prioritariamente destinados a dichas instalaciones en atención a los principios de autosuficiencia y proximidad.

Para aquellos residuos cuyo destino final previsto sea la eliminación en vertedero autorizado, la caracterización se efectuará de conformidad con lo señalado en la Decisión del Consejo 2003/33/CE, de 19 de diciembre de 2002, por la que se establecen los cri-

rak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

